

ANIMALIEN BABESERAKO X. EUSKAL JARDUNALDIAK



Argazkia: Luis Presa

VITORIA-GASTEIZ

2017 azaroak 14 | 15 | 16

Aldabe Gizarte Etxea (Arriagako Atea 1) | 19:30ean

Babeslea



Antolatzailea



Oraingoan *ANIMALIEN BABESERAKO X. EUSKAL JARDUNALDI*lek 'kale katuen' inguruko auzia jorratzen dute, era monografikoan. Zein da fenomenoaren benetako dimentsioa? Har daitezke kalean bizi diren katuak 'konpainiako animaliatzat' edota 'basa espeziekotzat'? Hareago... egitan esan dezakegu katuak ezagutzen dugula?

*LEHEN SAIO*Ak katuen maneiuari buruzko esperientzia personal bat dakarkigu. Katuen gainean ia dena dakigula sinetsita egoten garen arren, oso ezaguera txikia dugu; eta horrexegatik hizlariak eskaintzen digu beraien gaineko jakintza psikosozial sakona. Dударik gabe, beharrezko ezagutzak datu biolokikoak nahiz portaerari dagokiona biltzea dakartza. Bakarrik honela lortuko bait dugu gure katuekiko harreman zintzo eta bidezkoa edukitzea.

*BIGARREN SAIO*Ak aurkezten zaigu urteak daramatzan katuak bebeserako proiektu bat, kalean bizi izandakoak kudeatzen dituzten ekimenei laguntza baliogarri gisakoa. 'Katu hospitalea' dela esan liteke, bertakoentzat iragaitzazko gunea izanik, helburua betiko familia aurkitzea bait da, behin sendatuta.

*HIRUGARREN SAIO*Ak kale katuen taldeen kudeaketa [humanitario] adibide praktikoa erakusten digu. Izan ere, komunitate hauen kideek eguneroko gorabehera ugari pairatzen dituzte, bizitza laburrak edukiz, eta kalidade urrikoak, gainera. Halabaina, protokolo egoki eta proaktiboak emaitza aberatsa ekar dezake, beraien ongizatea (hitzaren zentzu zabalean) gora egiten bait du nabariki.

Garai berriak bizitzen ditugu, eta eredu moral zaharretariko batzuk izugarri azkar aldatzen ari dira. Beraz, *Animalien Auzia* deritzona ezin da atzean geratu bidaia honetan. Horrexegatik jarraitzen dugu pentsatzen *Jardunaldi* hauen funtsezko ezaugarria, beste edozeinen gainetik, eremu didaktiko eta eraikitzailetik aldi berean datorrela: elkarren arteko ideien eta iritzien trukaketa, azken finean.

azaroak 14, asteartea

OINARRIAK ERAIKIZ: ZER DA KATU BAT?

ROSA ROLDÁN

Perrygatos elkarteko zuzendaria dugu. Bertan txakurren zein katuen heziketa lanak garatzen ditu, baita jabeentzako aholkularitza jarduera ere. Besteak beste, erakunde babesle eta albitari profesionalekin batera, formakuntzarako kurtsuak antolatu egin ohi ditu.

"Ikasnahi eta kezkatsu"tzat jotzen du bere burua, eta gogoan dauka beti *Gordok* ekarri zuela esparru honetara, 2000. urtean adoptatuta, proiektuaren inspiratzaile izan zelarik.

Sinetsita dago edozein heziketa ekimenetan etengabeko formakuntza eta jakintza-trukea direla faktore nagusiak.

ANAVET (Asociación Nacional de Asistentes Veterinarios) nahiz beste nazioarteko elkarte ikertzaile eta dibulgatzaile batzuetako kide da.

Katu bat ez da txakur bat, ezaugarri desberdinak bait ditu batek eta besteak. Eta, zer esanik ez, katua ez da umetxo bat balitz bezala tratatua izan behar. Txakurrak hedetik tiroka ibili gabe 'programatuak' ez diren era berean, katuek beti erakusten ditzute beren erpeak zorrozteko joera, beste aukera bat eman ezean. Azkenean, edozein intenbidek uztartu egin behar ditu elkar ulertzea, praktika eta pazientzia.

Katu bakoitza izaki errepikaezina dugu, eta onartu behar da bere itxura fisikoaren atzean izaeren, kidetasunen eta gustoen mundu zoragarria aurki daitekeela: batzuek harreman sozialak maite dituzten bitartean, beste batzuk barnerakoiak dira oso; batzuk 'berritsuak' dira, eta beste batzuk *miau* ere ez diote; hiperaktibo hauek, sedentarioak beste horiek...

Katua bere bakartasunetik ezagutzea funtsezkoa da norberaren izaera errespetatzeko; eta, bide batez, honela ekidingo dugu gure aldetik itxaropen faltsuak sortzea, hauexek apurtzen bait dute harremana, epe luzean. Eta eszenatoki honetan beti izaten dugu galtzaile berbera: animalia.



azaroak 15, azteazkena

KATUAK BABESTEKO EGITASMO INTEGRALA

MONTSE GARCÍA & AINHOA ITURRIAGA

Vitoria-Gasteizko hirian kokatua dagoen Esperanza Felina elkartearen bi fundatzaileetakoak ditugu. Erakunde honek katu behartsuei kalitatezko zein betirako etorkizuna ematea du helburu nagusi.

Udalaren Armentiaiko 'zakurtegiari' boluntario lanean aritu ondoren, Montsek katuen beharrak nabariagotzeko erabakia hartu zuen, eta horrexegatik etengabeko formakuntzari ekiten dio, zeinetan Etologia Klinikoa, katuaren maneia edota Konpainiako Bebesleketako bertakoak adoptatze kudeaketari eta sustatzeari buruzko ikasketak sartuta dauden.

Bere aldetik, Ainhoa Turismoan diplomatua dugu, eta katuekiko maitasuna umetatik datorkiola aitortzen du. Daukan *blog* tematikoaren bidez Montse ezagutzen du, eta 2009az geroztik biek Esperanza Felina elkartearen oinarriak eraikitzen hasi ziren.

Esperanza Felinaren jarduera fisikoa elkartekideek "el pisito" deitzen diotenaren inguruan da. Hauxe hirian bertan kokatutako gune diskretua dugu, non katu abandonatu eta gaixoak hartzen dituzten, beharrezko baliabide afektibo eta sanitarioak emanez, osasuna berreskuratu arte. Prozesua bukatutzat jotzen da animalia familia batean betiko sartuta dagoenean, eta gaineratzen du ondorengo segimendua nahiz laguntza, hala bada gogokio.

Era berean, elkarteak inadaptazio edo portaera arazoan aurrean aholkularitza lana eskaintzen du. Egun Esperanza Felinak Arabako probintzian eta hiriburuan katu kaletarren taldeak kudeatzen dituen CESCO Proiektuan hartzen du parte.



azaroak 16, osteguna

KALEKO KATUEN KUDEAKETA ETIKOA

ANDRÉS ILLANA

Grupo Alavés para la Defensa y Estudio de la Naturaleza (GADEN) 1989. urtean kofundatu zuen, egun probintzia honetan erreferentziazko elkarte ekologista dugularik. Hamarkada bat baino gehiagoz aritu zen Martiodako Faunaren Suspertegian, Estatu mailan aintzidari izan zen ekimena izanda. Ingurumenean eta faunan duen giza inpaktuaren gaineko lan ugaritan parte hartu du egilekide gisa. Azkenengo berrogei urtez formakuntza ekologista eta ambientalista zabala eratu du.

Hiriguneetan bizi diren katuen egunerokotasuna ez omen da batere erraza, beraientzat kalea etsai-girokoa zein arriskutsua delako. Izan ere, beren bizitza itxaropena nahiko motza da, eta oso urria kalidadea. Benetako 'konpainiako animaliatzat' jota ezin izanda, ezta basa espezieztat ere, 'inoren esparruan' daudela esan liteke. Eta hau guztia gutxi balitz, katuek [arrazoirik gabeko] betidaniko ospe txarra dakarte. Horrexegatik babes bereziaren beharra dute. Eta babeslan hau egia bihurtzen da kaleko katu taldeak kudeatzearen bitartez. Duela oso gutxi hasitakoa dugu Euskadiko hiriburuan CESCO Proiektua, jadanik emaitza esanguratsuak ematen ari dena, gainera.

